

## PRODUKTIBITATE-OSAGARRIARI BURUZKO INFORMAZIOA

«**Errendimenduaren ebaluazioa**» eta ebaluazio hori «**Produktibitate-osagarria**» delakoaren bidez ordaintzeari dagokienez, 2014. urterako kontuan hartu da produktibitate indibidualizatua. Produktibitate hori foru enplegatu bakoitzaren ordutegiaren betetze-mailaren arabera zehazten da.

- \* **Osagarria pertsonak une bakoitzean betetzen duen lanpostuaren arabera kalkulatu da (norberaren arazoetarako baimen-aldiak kenduta eta/edo lanaldiaren murrizketak aplikatuta).**

Ordutegiaren betetze-maila kalkulatzeko aldia hau izango da: 2014ko urtarriletik 2014ko abendura (hala ere, behin betiko datuak faltako direnez, aldi bakarraren kalkuluan 2014ko irailera arteko datuak erabiliko dira). Kontzeptu hauek hartuko dira kontuan:

- ◆ **Lanaldi teoriko indibiduala:** Langile batek, dagokion egutegiaren ondorioz, guztira egin behar dituen orduak, oporrak nola hartzen dituen kontuan hartuta (diferentziak izan ahal ditu egutegian ezarritako ordu teorikoei dagokienez).
- ◆ **Benetako lanaldi indibiduala:** Ordutegi-kontrolerako, enplegatu bakoitzari benetako lan-denboratzat hartzen zaizkion ordu guztiak (lanalditik kanpokoak barne), **hauek deskontatuta:**
  - ◆ Oposizio eta azterketetara joateko denbora
  - ◆ Lanaldiko absentiak
  - ◆ Medikuen kontsulta
  - ◆ Laneratze progresiboa
  - ◆ ABE - bajarik gabeko gaixotasunak.
  - ◆ Senideren baten ezkontzaren ondoriozko lizentzia
  - ◆ Ohiko etxebizitza aldatzeko lizentzia
  - ◆ Greba
  - ◆ Medikuen agindutako kontsulta
  - ◆ Ikasketetako azterketak egiteko lizentzia
  - ◆ ABE - bajadun gaixotasunak. < 31 egun
  - ◆ Ekitaldi kolektiboetara joateko lizentzia
  - ◆ Kargu publikoaren ondoriozko lizentzia
  - ◆ Arratsaldea ez egiteko baimena (A..E.) 2:20

Ondorio hauetarako, lanaldiaren betetze-maila kalkulatzeko eragiketa hau egingo da:

$$\text{Benetako lanaldi indibiduala} / \text{Lanaldi teoriko indibiduala} = \text{betetze} \%$$

Produktibitate ebaluatzeko, 5 tarte ezarri dira betetze-mailaren ehunekoan:

- ◆ **% 80tik beherako betetze-maila:** Produktibitate aldakorraren % 0
- ◆ **% 80tik gorako eta % 86tik beherako betetze-maila:** Produktibitate aldakorraren % 44
- ◆ **% 86tik gorako eta % 92tik beherako betetze-maila:** Produktibitate aldakorraren % 66
- ◆ **% 92tik gorako eta % 95etik beherako betetze-maila:** Produktibitate aldakorraren % 88
- ◆ **% 95etik gorako betetze-maila:** Produktibitate aldakorraren % 100

Kalkulu hauetatik onena erabiliko da: aldi osoko orokorra, hiruhilekoko kalkuluaren batez bestekoa eta hileko kalkuluaren batez bestekoa (biribiltze simetrikoa, bi dezimal).

Kalkulua egiten den garaian urriko, azaroko eta abenduko datu finakoak faltako direnez, enplegatuak kontratua izan badu, epe horretako hiruhilekoko eta hilekoko kalkuluan hau hartuko da ordutegiaren betetze indibidualtzat: urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan aztertutako kolektiboaren moda.

### **Pertsona bakoitzaren produktibitatea 2014rako:**

Ordaindu behar den osagarria kalkulatzeko, lortutako produktibitate-portzentajea aplikatuko zaio *lanpostu bakoitzerako produktibitateari dagokion* balio tabulatuari.